

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA. ELKANOKO ATALA



**NEGOZIOEN KUDEAKETAKO GRADUA:
CURRICULUMEN KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOEN
BARNE ARAUTEGIA.
NAHITAEZKO PRAKTIKAK**

PRACTICUMA

MAILA: Laugarrena

AURKIBIDEA

1.- IRAKASGAIAREN AURKEZPENA	3
2.- HELBURUAK	4
3.- ANTOLAKUNTZA, KOORDINAZIOA ETA KUDEAKETA	5
4.- PRAKTIKARAKO AURREIKUSITAKO JARDUERAK. PRESTAKUNTZA PROIEKTUA	8
5.- EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEKO ELKANOKO ATALEKO PRAKTIKA BATZORDEA	9
6.- PRACTICUMEAN IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUNAK	9
7.- PRACTICUMAREN ARAUAK	10
6.- PRAKTIKEN METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA	11
9.- PRAKTIKEN AZKEN MEMORIA	12
10.- ARAUTEGIAREN ARABERA EGIN BEHARREKO TXOSTENAK	13

1.- IRAKASGAIAREN AURKEZPENA

Negozioen Kudeaketako Graduko ikasleek egin beharreko nahitaezko praktikak gobernatzen dira Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiaren bidez, zeina UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2019ko uztailaren 12an.

Praktiken arautegi orokor horretan esaten da atal eta prozedura batzuk ikastegien esku geratzen direla, haiek beren protokolo eta irizpideen arabera gara ditzaten, Ikastegiko Batzarraren onespenerarekin. Horixe egitera dator barne arautegi hau.

Beraz, dokumentu honetan aipatzen ez den guztirako, arautegi orokorrera jo beharko da. Era berean, testu honek eta arautegi orokorrak zeozertan talka eginez gero, arautegi orokorrari egin beharko zaio men, kategoria normatibo handiagoa baitauka.

PRACTICUMA	
Irakasgaiaren izena:	Enpresetako Praktikak
Kodea:	27552
Titulazioa	Negozioen Kudeaketako Gradua
Ikastegia:	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Elkanoko Atala)
Irakasgai mota:	Nahitaezkoa
ECTS kredituak:	18 kreditu
Gaia:	PRACTICUMA
Maila:	Laugarrena
Lauhilekoa:	Bigarrena
Arduraduna	Praktiken eta Gradu Amaierako Lanaren Moduluko irakasleak
Moduluko koordinatzailea:	Ikaslego eta Praktiken dekanordea praktiges.fee-elkano@ehu.es

Dokumentu honetan jasotzen da Negozioen Kudeaketako Graduko Praktika Plana. Gradua UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Elkanoko Atalean ematen da. Practicuma inguruneko enpresa edo erakundeetan hartzen den prestakuntza praktikoa da. Bertan, ikasleek aplikatzen eta kontrastatzen dituzte graduan zehar eskuratutako ezagutza teorikoak, trebetasunak eta gaitasunak. Gainera, ikasleek gogoeta egiteko akuilua ere badira praktikak, eta, horrela, haien prestakuntza

sendotzeaz gain, etorkizun profesionalerantz bideratzen hasteko aukera. Praktikaldian ikasleek beren trebetasun eta ahalmen sozial eta pertsonalak landuko dituzte eta harreman zuzena eta erreala izango dute enpresa munduarekin. Ingurune errealetan murgilduko dira, zuzenean ezagutzeko, jakintza teorikoa eta praktikoa uztartzeko eta gaitasun profesionalak eskuratzeko eremu guztietan. Beharrezkoa da ikasleek beren eskakizun profesionalak modu praktikoa ezagutzea eta gai izatea erantzuna emateko enpresa ingurune batean lan egiteak dakartzan arazo pertsonal eta sozialei.

Praktikak behar diren bermeekin egiteko, aurretik gurekin hitzarmena daukaten enpresa edo erakundeetan¹ egiten dira, edo ikasleak bere kabuz harremana egin duen enpresa edo erakundeetan, baldin eta arlo honetako koordinazio organoek aurretik onespena ematen badiete. Hitzarmenean zehazten da zer zeregin beteko dituen ikasleak enpresan eta zein ordutegi izango duen; gainera, enpresa laguntzaileko instruktore bat eta unibertsitateko tutore akademiko bat izendatzen dira bertan, ikaslearen prestakuntza gainbegiratzeko.

Dokumentu honen helburua da praktiketan parte hartzen duten eragile guztiei — ikasleei, tutore akademikoei eta instruktoreei— laguntza eta informazioa ematea, jakitun egon daitezzen practicuma aurrera eramateko behar den guztiaz: ideia giltzarriez, oinarrizko araez, helburuez, denboraren antolaketaz, metodologiaz, praktiken memoriaz, ebaluazioaz...

2. HELBURUAK

Practicumaren helburu nagusia da ikasleak bere ezagutza teknikoak hobetzea eta prestakuntza integrala osatzea, ordura arte ikasitakoa sendotzeko eta haren etorkizun profesionala bideratzeko, eta, era berean, Negozioen Kudeaketako Graduan bereganatutako ezagutzak praktiketan txertatzea eta enpresara eta haren ingurune sozialera egokitzea. Bestalde, irakasgai honen beste helburu bat da graduko beste irakasgaietan eskuratutako ezagutza teoriko-praktikoak testuinguru errealetan aplikatzea. Hortaz, praktikak enpresa munduan murgiltzeko prozesutzat hartu behar

¹ Hitzarmen eredia jasota dago UPV/EHUko IKASLEEN KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOEN ARAUTEGIko I. eta II. eranskinetan.

dira. Haien bitartez ikasleei kalitatezko prestakuntza praktiko sendoa eman nahi diegu, laneratzen direnerako prestakuntza gisa. Profesionalaren errealitatera hurbiltzeko esperientzia bat izango dira, baina tutore akademiko baten eta enpresako instruktore baten begiradapean, eta, alde horretatik, irakasgai hau prestakuntza akademikoaren osagarria da. Praktikak egitea ezinbestekoa da titulazioaren gaitasunak eskuratzeko. Era berean, ideia da praktikek ikasleei laguntzea espezialitatea eta etorkizun profesionala hautatzen.

Praktiken helburu orokorrak, beraz, honako hauek dira, laburbilduta:

- Mundu profesionala ezagutzea eta harekin lehen harremana izatea.
- Graduan zehar eskuratutako gaitasunak jardun profesionalean aplikatzea.
- Talde lanean ibiltzea giro profesional batean.
- Graduatuei etorkizunean laneratzen laguntzea.

3.- ANTOLAKUNTZA, KOORDINAZIOA ETA KUDEAKETA

1. Praktika Programaren arduraduna Ikaslego eta Praktiken dekanordea izango da. PPAk hala nahi badu, Ikastegiko Praktiken Batzordeak lagunduko dio.

2. Ataleko Batzarrak onartu beharko du, dekanotzaren proposamenez, praktiken barne arautegia.

3. Praktikak antolatzeko, PPAk tramitatu eta sinatuko ditu unibertsitatearen eta ikasleen prestakuntzan lagunduko duten erakunde edo enpresen arteko hitzarmenak.

Negozioen Kudeaketako Graduan irakasgai honetan matrikulatu ahal izateko **ezinbesteko baldintza** izango da gutxienez titulazioko 120 kreditu gainditu izana, hau da, graduako kredituen erdia. Beraz, ikasleek hirugarren eta laugarren mailan egin ahal izango dituzte praktikak.

Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitza egiteko, ezinbestekoa izango da 180 kreditu eginda izatea.

4. Antolaketa, koordinazio eta kudeaketarako prozedura orokor honi jarraituko zaio:

4.1. Matrikulaziorako epe orokorra izango da unibertsitateak ikasturte bakoitzerako ezartzen duena, ohiko matrikula prozeduren arabera. Uztaileko lehen

hamabostaldian epea irekiko da hurrengo ikasturterako nahitaezko praktiketan matrikulatu nahi dutenek izena emateko eskaria aurkezteko, PPAk zehazten duen prozedurari jarraituz. Bakarrik eman ahalko dute izena praktikak egiteko baldintza akademikoak betetzen dituztenek.

4.2. Eskaria egiteko epea bukatuta, PPAk kalkulatu du printzipioz zenbat tutore beharko diren hurrengo ikasturterako, eta zenbat praktikaldi eskatuko zaizkien enpresa laguntzaileei.

4.3. Praktiken arautegiko 27. artikuluan zehazten denez, tartean dauden sailek proposatuko dute, kasu honetan PPAri, praktiketako orduak saileko irakasleen artean nola banatuko diren, matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera. Protokolo honi jarraituko zaio:

4.3.1. Ataleko PPAk kalkulatu du graduan, irakasten duen sail bakoitzari zenbat ikasle tutorizatzea dagokion, titulazioan esleituta daukan kreditu kopuruaren arabera.

Taula honetan ikus daiteke kredituen zein portzentaje dagokion Negozioen Kudeaketako Graduan irakaslana esleituta daukan sail bakoitzari.

SAILA	Nahitaezko/oinarrizko kredituak	Ikasturte bakoitzean gidatu beharreko nahitaezko praktiken portzentajea
Finantza Ekonomia I	18	% 10
Finantza Ekonomia II	12	% 6,7
Ekonomia eta Kudeaketa	90	% 50
Frantsesa	6	% 3,3
Ingelesa	12	% 6,7
Enpresen Antolakuntza	12	% 6,7
Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoa	30	% 16,7
Guztira	180	% 100

4.3.2. Sail bakoitzak zenbat ikasle tutorizatu behar dituen behin kalkulatu, PPAk sailei eskatuko die uztaila amaitu baino lehen bidal dezatela hurrengo ikasturtean nahitaezko praktikak tutorizatuko dituzten irakasleen zerrenda, eta bakoitzari dagokion kreditu kopurua.

4.4. Irailetik aurrera, PPAk enpresen artean banatuko ditu matrikulatutako ikasleak. Enpresak izango dira bai UPV/EHUren datu basean daudenak, bai ikasleek eurek kontaktatutakoak eta bai ikasleren batekin dagoeneko praktika adostu duten enpresak. Kasu guztietan enpresak instruktore bat izendatuko du.

4.5. Tutorea izendatzeko (arautegiko 28. artikulua), honako protokolo honi jarraituko zaio: Sailek izendatutako IRI guztiak alfabetoz ordenatuko dira, eta zozketa egingo da erabakitzeko zerrendako zein izenetatik aurrera hasiko diren tutoreak esleitzen, eta ordena korrelatibo horri jarraituko zaio. Irakasleei ikasle bana esleituko zaie modu sekuentzian, eta zerrenda behar beste aldiz pasatuko da, ikasle guztiak esleituta egon arte. Irakasle batek bere tutoretza kupoa betetzen badu (bere sailaren informazioaren arabera), zerrendako hurrengora pasatuko da txanda.

4.6. Tutorea behin esleituta, hitzarmena sinatuko da enpresarekin, eta hori izango da abiapuntua ikasleak praktikak egiteko enpresan.

Sasoari dagokionez, normalean praktikak egiten dira graduko 4. mailako eta gradu bikoitzeko 5. mailako 2. lauhilekoan. Gainera, ikasleek ikasturteko edozein sasotan egitea adostu ahalko dute enpresarekin, baina kontuan hartu beharko dute beste irakasgai batzuen eskolak egongo direla eurak praktikan dauden bitartean.

4.7. Ikasleei praktikak esleitzeko irizpide orokorra izango da espedienteko batez besteko nota eta graduan edo gradu bikoitzean gainditutako kreditu kopurua. Edozelan ere, desgaitasuna duten ikasleei lehentasuna emango zaie enpresa hautatzeko eta praktika esleitzeko, aukera izan dezaten joateko irisgarritasun unibertsalerako neurri guztiak (garraiorakoak barne) bermatuta dituzten enpresetara.

4. PRAKTIKARAKO AURREIKUSITAKO JARDUERAK. PRESTAKUNTZA PROIEKTUA.

Ikasleek enpresan egingo dutenaren muina prestakuntza proiektuan egongo da zehaztuta. Proiektuan finkatuko dira bai hezkuntza helburuak eta bai ikasleak egin beharreko jarduerak. Helburuak zehaztean kontuan hartuko dira ikasleek eskuratu beharreko oinarrizko gaitasunak, gaitasun orokorrak eta gaitasun espezifikoak. Ziurtatu beharko da eskuratu beharreko gaitasunek lotura zuzena dutela egindako ikasketekin.

5.- UPV/EHUko EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEKO ELKANOKO ATALEKO PRAKTIKA BATZORDEA

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2022/07/12ko Erabakian jasotzen den bezala, practicum bidezko irakaskuntza-enkargua onartzeari dagokionez, zentroan practicumaren edo nahitaezko kanpo-praktiken aholku-batzorde bat eratuko da.

Batzordeak kide hauek izango ditu:

- PPA
- Praktikei atxikitako AZPko kidea
- Negozioen Kudeaketako Graduako irakasle bat edo bi.

6.-PRACTICUMEAN IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUNAK

Praktikak funtsezko espazio bat dira etorkizuneko profesionalak prestatzeko, ikasleek bertan txertatzen baitituzte graduako moduluetan zehar eskuratutako ezagutza teoriko guztiak. Gainera, beren etorkizun profesionala kokatuko den errealitate enpresarialera hurbiltzen dituzte ikasleak. Beraz, enpresetako praktiken helburu nagusia da ikasleak gerturatzea etorkizunean beren jardun profesionala gara lezaketen eremu profesionaleko lan girora. Gainera, praktiken beste ikaskizun garrantzitsu bat dira profesionalekiko eta lankideekiko harremanak lantzea eta ardurak hartzea.

Praktiken ostean ikasleak gauza izan beharko dira behar bezain jantzita daudela frogatzeko, eta arlo hauetan gai direla erakusteko:

PRACTICUMAREN MODULUKO GAITASUNAK

Mota	Moduluko gaitasuna
Espezifikoa/zeharkakoa	
Espezifikoa	1. Negozioen kudeaketaren eremuan profesionalki jardutea gaitasunez eta jakitez.
Espezifikoa	2. Testuinguru global lehiakorrean errealitate ekonomiko, enpresarial eta komertziala eratzten duten esparrua, osagaiak eta harremanak modu konkretuan aplikatzea.
Espezifikoa	3. Negozioei lotutako prozesuak eta eragiketak kudeatzea hautatutako jardun eremuetan.
Espezifikoa	4. Intereseko informazioa hautatzea eta ebaluatzea, eta txostenak egitea arazoak konpontzeko eta erabakiak hartzeko.
Zeharkakoa	5. Trebezia kognitibo, instrumental eta emozionalak erakustea banakako eta taldeko lanerako, ekimenerako, erabakitzeko, arriskuak hartzeko eta lidergorako.
Zeharkakoa	6. Enpresa jardunaren printzipio etikoaren arabera konpromisoak eta erantzukizunak hartzea.
Zeharkakoa	7. Hitz jario onaz, zuzentasunez eta arrazoimena eta gaitasun kritikoa erabiliz komunikatzea, IKTak baliautz eta atzerriko hizkuntzak menderatuz, enpresa eta merkataritza jardunarekin zerikusia duten gaietan.

7.- PRACTICUMAREN ARAUAK

1. Praktikaldira zehar, ikasleak nahitaez joan beharko dira agintzen zaien jardueretara, eta tutoreek esandako zereginak bete beharko dituzte, Enpresetako Praktika irakasgaiaren Irakaskuntza Gidako jarraibideen arabera.
2. Tutoretzetara joatea ezinbestekoa da ikasle guztientzat. Emandako zereginak ez betetzea edo esandako jardueretara huts egitea nahikoa izango da irakasgaia suspenditzeko, eta kasu horretan ikasleak hasieratik egin beharko du berriro.
3. Curriculumeko praktikek 450 ordu biltzen dituzte. Ordutegia izango da enpresa edo erakundeak eta UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Elkanoko Atalak hitzarmenean sinatutakoa. Egunean lau eta zortzi ordu bitartekoa izango da, hitzarmenean ezarritako tartearen barruan betiere.

4. Praktikaldian tutore akademikoak eta enpresako instruktoreak edo kanpoko tutoreak ikaslearen balorazio bat egingo dute, irakasgai horren azken kalifikaziorako erabiliko dena.

5. Praktikak amaitzean ikasleek Azken Memoria egingo dute, eta tutore akademikoari emango diote ebaluatzeko, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiari jarraituz.

8.- PRAKTIKEN METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA.

Gai honen oinarrizko helburua da ikasleek beren prestakuntza osatzea lantoki batean egindako praktiken bidez. Helburu hori betetzeko, ikasleak bere ezagutzak aplikatu ahal izango ditu, eta esperientziaren bat bereganatu.

Metodologiak modua emango dio ikasleari graduan eta irakasgai zehatz honetan ezarritako gaitasunak bereganatuz joateko, beherago azaltzen diren jardueren bitartez.

Praktika ebidentzia hauen arabera ebaluatuko da:

1. Enpresako aurrez aurreko jarduna:

Ikasleen parte hartzea enpresa publiko edo pribatuetan aipatutako gaitasunak eskuratzeko.

2. Tutorearekin egindako bilerak:

Ikaslea praktiken tutorearekin bilduko da aldiro, banaka edo taldean, enpresan egindakoaren berri emateko eta eskuratzen ari den trebetasunak erakusteko, eta memoria egiteko metodologia ikasteko.

3. Ikasleen azken txosten edo memoria.

Praktika amaitutakoan, ikaslearen azken lana izango da unibertsitateko tutoreari txosten edo memoria bat aurkeztea, eskuratutako ezagutzak eta esperientziak islatuko dituena.

4. Erakunde laguntzaileko instruktorearen amaierako txostena:

Praktikak amaituta, eta 15 eguneko epean gehienez, erakunde laguntzaileko instruktoreak PPARI eta ikasleari amaierako txosten bat bidaliko die, praktiken ebaluazioarekin, ereduan eskatzen diren xehetasunak emanez.

5. Praktiken balorazioa eta ziurtagiria:

unibertsitateko tutoreak praktikak ebaluatuko ditu, instruktorearen txostena eta ikaslearen memoria oinarri hartuta. Horretarako, amaierako balorazio txostena egingo du, dagokion eranskineko atalak betez. Aldi berean, hori izango da praktiken ziurtagiria.

Ikasleak enpresako praktikaldian eskuratutako ezagutzak eta trebetasunak ebaluatuko dira. Hauek izango dira eskatuko zaizkion ikaskuntzaren emaitzak:

1. Memoria bat egitea non azalduko duen gai dela negozioen kudeaketan profesionalki jarduteko, behar den gaitasunez eta jakitez, eta, zehazki, bereganatu dituela hurren aipatzen diren gaitasunak.
2. Praktikak egin dituen enpresaren testuinguruan errealitate ekonomiko eta enpresariala eratzen duten markoaren, osagaien eta harremanen berri ematea memorian, eta organigrama, mapa kognitibo edo bestelako tresna kontzeptualen bidez laburbiltzea.
3. Intereseko informazioa hautatzea arazoak konpontzeko eta erabakiak hartzeko.
4. Praktikak egin dituen enpresan bakarka nahiz taldean lan egiteko eta ekimenerako, erabakitzeko, arriskuak hartzeko eta lidergorako balio handikotzat jotzen diren trebetasun kognitibo, instrumental eta emozionalak zerrendatzea; eta bere buruaren balorazioa egitea trebetasun horiei dagokienez.
5. Enpresa jardunaren printzipio etikoen baitan, konpromisoaren eta erantzukizunaren esanahiaren garrantziaz jabetzea, eta horren arabera jokatzeko.
6. Hitz jario onaz, zuzentasunez eta arrazoimena eta gaitasun kritikoa erabiliz komunikatzea, IKTak baliatuz eta atzerriko hizkuntzak menderatuz.

Practicuma ebaluatzeko irakasle tutoreak jarraipena egingo dio ikasleari praktikaldian zehar (18 kreditu).

Ikasleak praktikak ondo egiten baditu, irakasle tutoreak txosten positiboa egingo du eta 18 kreditu horiek baliozkotuko zaizkio.

9. PRAKTIKEN AZKEN MEMORIA

Praktikak amaitzean ikasle bakoitzak Azken Memoria egingo du, praktikaldiaren azalpen eta xehetasunekin, eta tutore akademikoari emango dio. Azken Memoria egiteko, ikasleak tutoretza pertsonalizatuak izan ahalko ditu tutore akademikoarekin, horretarako adostutako orduetan. Praktiken Azken Memorian ikasleak ahalik eta xehetasun handienaz azaldu behar du praktiketan zehar behatutakoa eta hausnartutakoa. Dokumentu horrek balio behar dio tutore akademikoari jakiteko ikasleak zer egin duen egonaldi horretan, praktikaldia ebaluatu ahal izateko. Hori dela eta, ikasleak behar diren datuak jarri beharko ditu memorian.

10.- ARAUTEGIAREN ARABERA EGIN BEHARREKO TXOSTENAK.

- Ikasleen azken txosten edo memoria (V. eranskina).
- Kanpoko tutore edo instruktorearen ebaluazio txostena (IV. eranskina).
- Tutore akademikoaren ebaluazio txostena (VI. eranskina).